

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KRIPANGO UDALA

#### Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, udalerrri honetako bizilagunei jakinarazten zaie udalbatzak herriko bizilagun bat izendatzea proposatuko diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari, bake epaile titularren eta ordezkoaren kargua betetzeko.

Izendapen horretan interesa dutenek kasuan kasuko eskaera aurkeztu beharko dute Udaleko Erregistro Orokorrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hogeiei egun naturaleko epean.

Interesdunek betekizun hauek bete behar dituzte:

- Adinduna izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- Kripango udalerrian egotea errolatuta.
- Gutxienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua edo baliokidea izatea.
- Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Ezintasun kausa dira honako hauek (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua): fisikoki edo psikikoki funtzio judiziala betetzeko gai ez izatea; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, birgaitzea lortzen ez den bitartean; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, absolbituta egon ezean edo largespen-autoa jaso ezean, eta eskubide zibilak erabat baliatu ezin izatea.

Bateraezintasun kausa dira honako hauek (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389. artikulua): Botere Judizialaz kanpoko beste edozein jurisdikziotan jardutea; herriak hautetsitako edozein kargu izatea edo Estatuko, autonomia erkidegoetako, probintzietako eta gainerako toki erakunde eta haien mendeko organismoetako izendapen politikoa izatea; Estatuaren Administrazioak, Gorte Nagusiak, Errege Etxeak, autonomia erkidegoek, probintziek, udalerriek eta haien mendeko edozein entitate, organismo edo enpresak esleitutako edo ordaindutako postu edo kargua izatea; beste edozein jurisdikzio-ordenatuko auzitegi eta epaitegietako era guztietako postuetan aritzea, eta orotariko aholkularitza juridikoa ematen jardutea.

Halaber, bake epaileak ezingo dira alderdi politiko edo sindikatu bateko kide izan eta ezingo dute horien zerbitzurako lan egin, eta debekatuta dute Botere Judizialaren Lege Organikoaren 395. artikuluan (3/1995 Araudiaren 23. artikulua) jasota dauden jarduerak gauzatzea.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. NANaren fotokopia.
2. Zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo baliokidea.
4. Legeak ezarritako bateraezintasunetako bat ere ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

Kripan, 2022ko azaroaren 10a

*Alkatea*

**JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA**